



Getxo
bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA

Bizi kalitate handia, zahartze prozesuaren zailtasuna eta pertsona guztientzako astia eta baliabideen eskaera dira Getxo Lagunkoia proiektuaren azterketaren ondorio batzuk

Bizi kalitate handia, zahartze prozesuaren zailtasuna, pertsona nagusien heren bat udalerriko hiru elkarteetako partaide izatea eta udalari eskaera guztientzako (elkarteko kideak izanda edo ez) astia eta baliabideak bermatzea dira Getxo Lagunkoia proiektuaren lehenengo fasearen ondorioetako batzuk. Fase hori udalerraren egoera agerian uzten duen azterketa bat izan da, azken asteotan burututako partaidetza bidezko prozesu batetik ateratako ondorioen bitartez.

Getxo Lagunkoia hiria eraikitzeko proiektu bizia eta zeharkakoa da, pertsona nagusientzako hiri atsegina izateko lan egiten duena, eta ondorioz, adin guztietako pertsonentzat ere. Helburu hau agertzen da 2015/2019ko Legealdi Planaren 49 ekintza adierazgarrien artean eta udala aurrera eramaten ari den Zahartze Aktiboko estrategiaren barruan. Proiektua pasa den otsailean aurkeztu zen, eta martxoan abian jarri zen, udalerraren egungo egoera zehazten duen azterketa egiteko lehenengo jarduerekin, maila kuantitatiboan zein kualitatiboan. Horretarako, pertsona nagusiei buruzko datu estatistikoak biltzarekin batera, partaidetza izaera prozesua jarri zen martxan, lan talde batzuk osatuz eta inkesta bat egiten. Inkestetatik eta lan taldeetatik ateratako informazioak udalerriko pertsona nagusien lagin zabalak pentsatzen duena ezagutzea ahalbideratu du. Parte hartu duten pertsona nagusiei eskerrak eman dizkie Imanol Landa Alkateak prentsaurrekoan, *"beren partaidetza, esfortzua eta ekarpenak oso garrantzitsuak izan baitira Getxo Lagunkoia proiektua aurrera eramateko"*.

Lan taldeak eta inkesta

Martxoan eta apirilean pertsona nagusiek osatutako zortzi talde eta beste bat profesionalek osatutakoa elkartu ziren Gizarte Zerbitzuetako egoitzan zortzi esparru aztertzeko. Hain zuzen ere, adin desberdineko 78 pertsona nagusik (horietatik 38 emakume eta 40 gizon) parte hartu zuten. Horietatik, bizitoki desberdinetako 56 pertsona, 60 eta 74 urte bitartekoak izan ziren; 15, 75 eta 85 urte artekoak eta 3, 85 urtetik gorakoak. Aztertutako ardatzak honako hauek izan ziren: garraioa, etxebizitza, gizarte sarea, errespetua eta inklusioa, herritarren partaidetza eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, gizarte eta osasun zerbitzuak, kanpoko espazioak eta eraikinak. Gizarte Zerbitzuak eskaintzen dituzten entitatetako lagunek osatu zuten bederatzigarren taldea eta aipatutako gaiak ere aztertu zituen.

Bestalde, maiatzaren 13tik ekainaren 1era 507 inkesta egin ziren, 60 urtetik gora pertsonei,



Getxo

bizi ezazu

hurrengo gaiei buruz: Getxoko bizi kalitatea, kanpoko parkeak, zirkulazioa, hiri seinaleztapena, gizartea eta laguna, boluntarioak, astia, segurtasuna, garraioa, etxebizitza, errespetua eta inklusio soziala, komunikazioa eta informazioa eta Gizarte eta Osasun zerbitzuak. Inkestak telefonoz eta era presentzian egin ziren edadetuak ibiltzen diren tokietan, hau da, osasun zentroetan, kultur aretoetan, kiroldegietan eta pertsona nagusientzako zentroetan. Kasu horretan parte hartzaileen adina hurrengoan izan da: 131 lagun 60 eta 64 urte bitartekoak; 218, 65 eta 74 urte artekoak; 73, 75 eta 80 urte bitartekoak, eta 85 lagun 80 urte baino gehiagokoak. Nabarmentzea inkestan parte hartu duten 75 urtetik gorako pertsonen kopuru altua (158).

Ondorioak

- * Gehiago zabal batek agertu du bizi kalitate ona, eta jarduera eta baliabide ugari eskaintzen dituen udalerrian bizi dela.
- * Bi jarduerak agerian utzi dute zahartze prozesuaren konplexutasuna, pertsona nagusien kolektiboaren barruan adin talde desberdinak daudelako, behar eta interes desberdinekin. Alde batetik, 60 urtetik 75era eta kasu batzuetan 80era arteko pertsona nagusiak daude, osasun eta bizi baldintzetako aurrerapenei esker gaur egun osasun egoera ona dutenak, autonomia maila onarekin eta menpekotasun maila gutxiarekin. Bestetik, 75/80 urtetik aurrerakoak osasun egoera ahulago duten pertsonak izaten dira, autonomia gutxiagorekin eta menpekotasun maila handiagorekin.
- * 60 urtetik gorako 24.700 pertsonetatik heren bat udalerrian dauden pertsona nagusien hiru elkartetako bateko kidea da. Bestalde, %20 bat (batez ere 60 eta 75 urte bitartekoak) elkarte desberdinetan laguntzen du (kultura, gizarte, boluntario..). "*Udalarriko pertsona nagusien artean dagoen aniztasun handia (adina, egoera..) kontuan hartuta, argi geratu da pertsona guztientzako (elkarteko kidea izanda ala ez) astialdirako eskaintza egokia bermatzeko udalari egindako eskaera edo exijentzia*", nabarmendu du Alkate getxotarrak.
- * Baliabideen banaketa egiterakoan aniztasun funtzionalaren arabera 60 urtetik gorako pertsona nagusi autonomoak daude, 60 urtetik gorako autonomi gutxi galdu duten pertsonak eta mendekotasun maila handiko pertsonak. Sailkapena garrantzitsua da, pertsona nagusien zahartze erari begirako prebisio falta atzeman delako. Menpekotasun egoera sortzekotan, oso gutxi dute antolatuta heuren bizitza.
- * Genero ikuspegiari dagokionez, generoagatik bazterketa egoerak zaintzeko beharra atzematen da, kasu batzuetan emakumezkoak baitira gehienak (zainketa lanetan adibidez..)
- * Aniztasuna islatzen duen zahartze aktiboari buruzko irudia zabaltzeko beharra ikusten da, pertsona nagusiak arreta sozialaren hartzaile gisako eta pertsona pasiboen iruditik aldentuta. Pertsona aktiboen irudia nabarmendu behar da, udalerrri moderno eta garatua eraikitzen segitu nahi bada. Arrazoi horregatik ere, nagusien ezaguera aprobetxatzea sustatu behar da.

Pertzepzioak

Parte hartu duten pertsonen pertzepzioen artean, gehiengoak aitortu du zahartze ona izateko jarduera eta baliabide anitz eta ugari eskaintzen dituen udalerrian bizi dela, hobetzeko hainbat gairekin. Horietariko askotan ari da lanean jadanik Udala edo lan egiteko asmoa du. Inkestaren



Getxo

bizi ezazu

arabera, %89 poztasun maila altua du udalerraren bizi kalitatearen aurrean, hurrengo puntu zehatzetan: kanpoko guneak, garraioa, begirunea eta inklusioa udalerraren bizitzan, etxebizitzak beharretara egokitzea eta Gizarte eta Osasun zerbitzuak. *"Ildo horretan, parte hartzaileek onartu dituzte udalerrak paseatzeko eta astia emateko eskaintzen dituen aukerak, eta bestalde, eskatzen dute komun publikoak, bidegorriak, elkartzeko estalitako guneak..zaintzea. Positibotzat jotzen dute udalerriko goiko aldeetara erraz heldu ahal izateko ipintzen ari diren mekanismoak eta erabilera komuneko tokietan baloreetan oinarritutako heziketarako beharra azpimarratzen dute, besteak beste, txakurren gorotzei, espaloietako oztopoei, zaratari, bizikleta, oinezko eta ibilgailuen arteko bizikidetzari lotutakoa", azaldu du Elena Coriak, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak.*

Galdetutako pertsona gehienak nahiko informatuta sentitzen dira, baina eskertu egingo lukete hori egokitzea hizki handiagorekin, irakurterazarekin, eta hizkuntza errazarekin. Aldi berean, teknologia berriak erabiltzeko heziketa eskatzen dute eta bide teknologietarako bideak erraztea ere. Komunikazioak koordinatzeko eta zentralizatzeko garrantzia ere azpimarratu dute.

Hurrengo urratsak

Datu horiekin guztiekin, hemendik aurrera, Udalak Getxo Lagunkoia proiektuaren hurrengo fasea esleituko du, zeharkako eran jarduerak antolatzen segituko du, pertsona nagusientzako udalerrari atsegina eraikitzen jarraitzen.

(*) Argazkiak eta soinu korteak eskuratzeko:

<http://www.getxo.eus/prensa>.

Pasa-hitza: fotosycortes

GetxoUdala



You Tube

Prensa bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzeko. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.